



**Formulario honetako datuak Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren erregistro informatikoan sartuko ditugu. Eta horren berri jakinarazten dizuegu, 15/1999 Lege Organikoko (abenduarien 13ko legea, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa) 5. artikuluan arautukoari jarraituz.**

## **OHARRA:**



Ondoren bete behar den dokumentuan, informazioa gorde deitzen den aukera ez da erantsi behar. Horregatik dokumentua bete aurretik, behar den informazio guztia eskura duzula ziurtatu egin behar da.

## **NOLA BETE FORMULARIOAK**

PDF dokumentuak bistaritzen badituzu zure Web-arakatzaillearen leiho batean, bertan jasotako formularioak Acrobat Reader bidez bete ahal izango dituzu, eta gero, formulario eta datuak Reader bertatik inprimatu.

### **Formulario bat betetzeko:**

1.- *Eskua* tresna aukeratu.

2.- Kurtsoarea, bete nahi duzun eremuaren gainean jarri.

Kurtsoreak / forma hartzen duenean, testua idatzi daitekeela esan nahi du. Gezi forma hartzen duenean, berriz, aukera bat egin ahal izango duzu: eremua, egiaztapen-laukitxo, botoia edo zerrendako elementua.

3.- Testua idatzi ondoren, edo elementu, egiaztapen-laukitxo edo botoia aukeratu ondoren, ekintza hauetako bat egin ahal izango duzu:

- *Tab* sakatzen baduzu, eremu-aldaketa onartuko duzu eta hurrengo eremura pasako zara.
- *May.+ Tab* sakatzen baduzu, eremu-aldaketa onartuko duzu eta aurreko eremura pasako zara.
- *Return* edo *Intro* sakatzen baduzu, eremu-aldaketa onartuko duzu eta uneko eremuaren hautaketa ezeztatuko duzu.

Oharra: hainbat lerro dituen testu-eremuan, *Return* aukerak hurrengo lerroa eramango zaitu; ez du eremu-aldaketa balioztatzen, ezta uneko eremua ezeztatzen ere.

- *Esc* tekla sakatuz gero, eremu-aldaketari uko egiten zaio eta uneko eremuaren aukera ezeztatzen da.



4.- Orrialde bat bete aurretik, gomendagarria da, bat, bete beharreko informazio guztia eskura duzula ziurtatzea, eta bi, orrialde horretako eremuak bete ondoren, orrialdea inprimatzea:

- *Fitxategia > Inprimatu* aukeratu.

Batzuetan, testu irekia idazteko aukera ematen duten hainbat formulariotan (Proiektuaren Memorian, Jardueren Deskripzioan e.a.), gerta liteke utzitako tokia idatzi beharreko testua baino txikiagoa izatea, eta orrialde bat baino gehiago bete behar izatea. Kasu horietan, erreserbatutako lekua agortzen denean, alegia, betetzen ari zaren laukiaren lehen lerroa ezkutatu egin dela ikusten duzunean, honako hau esan nahiko du: idazteko zegoen espazioa agortu egin dela. Horregatik, esku artean duzun orria inprimatu egin beharko duzu. Horretarako, menu-barratik *Inprimatu* aukera hautatu eta orrialdea markatu; betetakoa inprimatua izango duzu eta ez duzu idatzia dagoena galduko. Gero, laukiaren barruan kokatu eta ESC tekla sakatu. Horren bidez, orrialdeko lauki hori hustu egingo duzu berriro, eta beraz, bertan idazten jarraitu ahal izango duzu. Errepikatu eragiketa hau, nahi duzun testu osoa laukian sartu arte.



# ETORTEK - 2004

## IKERKETA ESTRATEGIKORAKO PROIEKTUEN INPRIMAKIAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Agiri hauek euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira; horretarako [etortek@spri.es](mailto:etortek@spri.es) helbidera eskatu beharko dira bide elektronikoz; hala ere, **ES1, ES2 eta ES3 agiriak inprimatuta bidali beharko dira, behar bezala izenpetuta eta zigilatuta**. Era berean, espediente bakar bat aurkeztu beharko da eskatzaile bakoitzeko eta hauxe aurkeztu beharko dute:

### ESKAERA-ORRIA (ES-1)

Inprimaki bakarra aurkeztuko da proiektu bakoitzeko eta inprimakia osorik beteko du proiektuaren liderrak; inprimaki horretan liderraren datuak, proiektuaren izena eta proiektuan parte hartzen dutenak zehaztuko dira.

### PROIEKTUAN PARTE HARTZEAREN INPRIMAKIA (ES-2)

Inprimaki bat aurkeztuko du proiektuan parte hartzen duen bakoitzak (liderrak ere bai). Bertan parte hartzaile bakoitzaren datuak eta gastu lagungarrien banaketa, proiektuaren partaidetzarenak hain zuzen, jasoko dira.

### ZINPEKO AITORPENAREN INPRIMAKIA (ES-3)

Proiektuan parte hartzen duen bakoitzak inprimaki bat beteko du (liderrak ere bai). Inprimakia bi zati izango ditu: lehenengoan, onuradun izateko aginduak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela adieraziko du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko (ZTBES) eragile bakoitzak; bigarrenean, aurkeztutako proiekturako beste erakunde batzuei eskatu dizkien laguntzak adieraziko ditu.

### PROIEKTUAREN MEMORIA ZEHATZA

- **Memoria teknikoa (EM):** Proiektuaren azalpen teknikoa jasotzen du. Informazio hau garrantzitsua da ebaluazio prozesurako, beraz, ezinbestekoa da ahalik eta zehatzena izan dadin. Errazago betetzeko, jarraibide batzuk daude, lehenago aipatu dugun helbidean ([etortek@spri.es](mailto:etortek@spri.es)) eskatu den pakete elektronikoa datozenak.
- **Memoria ekonomikoa - Aurrekontua (EP):** Proiektuaren aurrekontuaren banaketa ekonomikoa jasotzen du. Informazio hau garrantzitsua da ebaluazio prozesurako, beraz, ezinbestekoa da ahalik eta zuzenen aurkez dadin. Errazago betetzeko, jarraibide batzuk daude, lehenago aipatu dugun helbidean ([etortek@spri.es](mailto:etortek@spri.es)) eskatu den pakete elektronikoa datozenak.

### NOTARIO AHALORDEAREN KOPIA

Parte hartzen duten ZTBESko eragile guztiek aurkeztu beharko dute agiri hau (proiektuaren liderrak ere bai), eta bertan egiaztatzen da kasuan kasuko eragilearen izenean proiektuan parte hartzen duela aitortzen duen pertsonak legezko gaitasuna daukala horretarako.

### ZTBES-KO ERAGILE ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO FISKALEKO TXARTELAREN KOPIA

ZTBESko eragile parte hartzaile guztiek aurkeztu beharko dute agiri hau (proiektuaren liderrak ere bai).

### ESKABIDEA EGITEN DEN UNEAN, GIZARTE SEGURANTZAREKIKO ETA FORU OGASUNAREKIKO OBLIGAZIOAK BETEAK DITUELA JUSTIFIKATZEN DUTEN AGIRIAK.

Aurreko agiriarekin bezalaxe, ZTBESko eragile parte hartzaile guztiek aurkeztu beharko dute agiri hauek (proiektuaren liderrak ere bai).

Gizarte Segurantzarekiko obligazioak beteta dituenaren ziurtagiria.

Foru Ogasunekiko betebeharrak egunean ditueneko egiaztagiria edo eskatzailearen berariazko baimena, baimena emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zuzenenan eskatzeko zerga arloko organo aginpidedunei laguntza eskatzailearen zerga betebeharrak bete izanaren egiaztagiria.

### AURKEZTEKO LEKUA ETA MODUA

Eskabide-orriak eta gainerako agiriak aurkezteko epea 2004ko apirilaren 30n ostirala amaituko da 17:00etan.



# ETORTEK - 2004

Eskabideak ISEB/SPRI, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuan aurkeztu beharko dira (Gran Vía, 35-3. Bilbao), zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako edozein bidez.





# ETORTEK - 2004

## PROIEKTUAN PARTE-HARTZEA

(ZTBESko parte-hartzaile guztiek bete beharrekoa, baita liderrak ere)  
**ES-2 INPRIMAKIA**

### 2a. Liderraren/parte hartzailearen datuak

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ NAN: \_\_\_\_\_

Ordezten du:

Erakundearen izena: \_\_\_\_\_

IFZ/IFK: \_\_\_\_\_

Enpresaren helbidea:

Udalerrria: \_\_\_\_\_ PK: \_\_\_\_\_

Kalea eta zk.: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Harremanetarako: \_\_\_\_\_

Tel.: \_\_\_\_\_ Faxa: \_\_\_\_\_ E-maila: \_\_\_\_\_

### 2b. hauxe AITORTZEN DU:

Ikerketa Estrategikorako Proiektu honetan hartzen duela parte: (proiektuaren izena) \_\_\_\_\_

### 2c. Proiektuan parte hartzearen aurrekontuaren banaketa

Aitortzen du honako aurrekontu lagungarri honekin hartzen duela parte (eurotan, hamarrenik gabe):

| I+G+I gastuak | Azpiegitura eta ekipamendu gastuak | Atzipen eta maila altuko prestakuntza gastuak | Nazioarteko lankidetzaren gastuak | Zaingo teknologikoaren gastuak | Teknologiaren hedapen eta transferentzia gastuak | Gastu lagungarriak guztira |
|---------------|------------------------------------|---|-----------------------------------|--------------------------------|--|----------------------------|
|               |                                    |   |                                   |                                |  |                            |

\_\_\_\_\_ (e)an, 2004ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an.

Izenpea eta zigilua



# ETORTEK - 2004

## ZINPEKO AITORPENA

(ZTBESko parte-hartzaile guztiek bete beharrekoa, baita liderrak ere)

**ES-3 INPRIMAKIA**

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_, NAN: \_\_\_\_\_

Erakunde honen ordezkari izanik: \_\_\_\_\_, IFZ: \_\_\_\_\_

### hauxe AITORTZEN DU:

2003eko abenduaren 31n enpresaren plantilla \_\_\_\_\_ langilekoa zela, hile horretako TC-2aren arabera.

2003eko abenduaren 31n \_\_\_\_\_ euroko fakturazioa zuela.

2003eko abenduaren 31n \_\_\_\_\_ euroko balantze orokorra zuela (aktiboak gutzira).

Fundazioa izanez gero, estatutuek ez dutela eragozpenik jartzen dirulaguntza eskatzen den jarduera egiteko.

Laguntza-eskaera hau aurkezteaz gain, proiektu honetarako laguntza eskatu diela gaurdaino honako erakunde publiko edota pribatu hauei eta /edo laguntza hauek lortu dituela:

| Eskaera-eguna | Erakundea | Programa | Eskatutako zenbatekoa | Emandako laguntza |
|---------------|-----------|----------|-----------------------|-------------------|
|               |           |          |                       |                   |
|               |           |          |                       |                   |
|               |           |          |                       |                   |

Horrez gain, ekitaldi honetan erakunde publiko nahiz pribatuei proiektu honetarako eska diezaiekeen beste edozein laguntzaren berri emateko konpromisoa hartu du.

\_\_\_\_\_ (e)n, 2004ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an.

Izenpea eta  
zigilua